



**18/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA
FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) honako hau ezartzen du 13. artikuluan:

«1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari:

- a) Generoaren aukera-berdintasunerako politika.*
- b) Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzendu eta koordinatzea.*
- c) Gobernuak berdintasunaren arloan duen politika eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko eta diskriminazio mota oro desagerrarazteko politikak proposatzea eta gauzatzea*
- d) Botere Judizialarekiko harremanak zaintzea.*
- e) Justizia Administrazioaren jardunerako baliabideak jartzea.*
- f) Espetxe-establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, funtzionamendua eta espetxe-legeria betetzea, legeria horrek Espetxe Administrazioako organo zentralei ematen dizkien ahalmenen egikaritzea bere gain hartuz.*
- g) Adingabe arau-hausleen arloko eskumenak baliatzea, adingabea babesteko eskumena duten gainerako organo eta administrazioekin lankidetzan*
- h) Notarioak eta jabetza-erregistratzaileak izendatzea.*

- i) Euskararen Erabilpena Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Justizia Administrazioan.*

- j) Giza eskubideak eta bizikidetzak gauzatzeko baldintzak sustatzea.*



- k) Biktimen eta memoriaren politikak zuzendu eta koordinatzea.*
- l) Gobernuak memoria historiko eta demokratikoaren arloan duen politika proposatzea eta gauzatzea, bai eta erlijio-askatasunerako eskubidea erabiltzea ere.*
- m) Familia babestea eta lan-bizitza eta familia bateragarri egitea.*
- n) Komunitate-garapena. Gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak.*
- o) Familia-bitartekaritza.*
- p) Haurrak eta nerabeak. Adingabearen babes. Gazteria.*
- q) Zahartzea eta erronka demografikoa.*
- r) Askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzea.*
- s) Immigrazioa.*
- t) Boluntarioritza.*
- u) Hirugarren Sektore Soziala.*
- v) Animaliak babestea.*
- w) Garapenerako lankidetzak.*
- x) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.*
- y) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.*

2.- Sail honi atxikitzen zaizkio «Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea» eta «Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora)» administrazioko erakunde autonomoak; eta «Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia» zuzenbide pribatuko erakunde publikoa».

Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Jaurlaritzaren Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 13. artikuluko horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko azaroaren 23an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_108486/20_10) txostenerako interesgarriak diren honako agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Azalpen-memoria.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorraren edukiak, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten baitie, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuko a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzardeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzarde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

«**4. artikulua.** - *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua*

[...]

2.- *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak egiteko hauek izango ditu, besteak beste:*

[...]

b) *Sailaren 1.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea Gobernu Kontseiluaren eskumenak ezertan galarazi gabe.*



c) Saileko kontratazio-organo gisa jardutea 1.000.000 eurotik gorako lizitazioarako oinarrizko aurrekontua duten kontratuetan, betiere, sektore publikoko kontratazioaren araudiak xedatutakoaren ildotik.

Halaber, baldintza berberetan, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat hartzen diren entitateekin prestazioen baten gaineko negozio juridikoak egiteko, sektore publikoko kontratazioa-arauetan ezarritakoari jarraikiz.

[...]»

«**6. artikulua.-** Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendariak.

Saileko zuzendariak honako egiteko hauek izango dituzte, oro har:

[...]

c) Kontratazio-organoei bultzada eta laguntza teknikoa eta materiala ematea.

[...]

e) Indarreko Hizkuntza Normalizazioaren Planaren helburuak definitzea berari dagokion esparruan, eta helburu horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea euskararen kudeaketa integratua gauzatuz bere zuzendaritzako zerbitziburutzekin elkarlanean; betiere Zerbitzu Zuzendaritzaren koordinaziopean eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak inplementatzea eta Zuzendaritzaren jardun-arloetan irizpide horien jarraipena egitea, besteak beste honako hauena: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, dagokion arloan, administrazio-kontratazioan eta dirulaguntzen deialdietan hizkuntza-irizpideak txertatzea.

[...]»

«**9. artikulua.-** Zerbitzu Zuzendaritza.

1.- Zerbitzu Zuzendaritzari, organikoki sailburuaren mende dela, dekretu honek oro har esleitzen dizkion egitekoen gain, honako hauek dagozkie, Dekretu honetan beste batzuei esleituta daudenean izan ezik:

[...]

b) Saileko kudeaketa ekonomikoa egitea eta aurrekontu-betearazpenaren faseak izapidetzea. Zerbitzu zuzendariak baimenduko ditu 1.000.000 eurotik beherako saileko gastuak.

[...]



2.- Zerbitzu zuzendaria izango da zeregin hauetarako eskumendun organoa:

a) Kontratazio-espeditentak eta baliabide propioei egin beharreko enkarguak izapidetzea.

b) Zerbitzu zuzendaria izango da Sailaren kontratazio-organoa, 1.000.000 eurotik beherako lizitaziorako oinarrizko aurrekontua duten kontratuetan, betiere, sektore publikoko kontratazioaren araudian xedatutakoaren ildotik.

Halaber, baldintza berberetan, eskumena izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat hartzen diren entitateekin prestazioren baten gaineko negozio juridikoak egiteko. Sektore publikoko kontratazio-arauetan zehaztuko dira baliabide propio eta zerbitzu tekniko horiek.

[...]»

«**12. artikulua.-** Justizia Administrazioko Zuzendaritza.

[...]

2.- Kudeaketa Unitate Teknikoak administrazio-unitateak lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetakako justizia-jauregietan daude, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren mende egongo dira organo-mailaketari dagokionez; eta, haien egitekoen eskuduntza duen Justizia Sailburuordetzako zuzendaritzaren mende, bestalde, egitekoei dagokienez.

Hauetara unitate horien egitekoak:

[...]

d) Kontratazio-espeditentak sustatu, bultzatu eta horien jarraipena egitea»

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: «Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organok [...] salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».

Eskumen hori erabiliz, dekretu-proiektuak honako xedapen hauek jasotzen ditu:

- 4.2.c) artikulua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari esleitzen dizkio kontratazio-organuari dagozkion eskumenak, 1.000.000 eurotik gorako lizitaziorako oinarrizko aurrekontua duten kontratuetan.



- 9.2.b) artikulua xedatzen duenez, zerbitzu-zuzendariari dagokio kontratazio-organo gisa jardutea, 1.000.000 eurotik beherakoa lizitaziorako oinarritzko aurrekontua duten kontratuetan.

Ildo beretik doaz, eta muga kuantitatibo berberak dituzte 4.2.b) artikulua eta 9.1.b) artikulua; lehenengoa saileko gastuak baimentzeko sailburuaren eskumenari buruzkoa da; eta bigarrena zerbitzu-zuzendariaren eskumenari buruzkoa.

4.2.c) eta 9.2.b) artikuluetan, kontratazio-organoari dagozkion eskumenak esleitzeaz gain, baliabide propioei enkarguak egiteko eskumena jasotzen da, muga kuantitatibo berberekin.

Artikulu horietan jasotako testuari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan agertzen den terminora egokitzeko, «*bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa*» esamoldearen ordez «*bitarteko propio pertsonifikatua*» jarri behar da.

6.e) artikulua bigarren lerrokadari buruz, hizkuntza-irizpideak txertatzeko eskumenari dagokionez, «*administrazio-kontratazioa*» jarri beharrean «*kontratazio publikoa*» erabili behar da, eta berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26ko Erabakian onartutako jarraibide eta printzipioen arabera garatu behar dela. Erabaki horren bidez, onartu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sektore publikoko kontratuei buruzko legediaren esparruan burutzen dituen kontratazioetan Euskararen erabilera eta ezagutza txertatzeko printzipio orokorrak ezartzen dituzten jarraibideak. Txosten honen xedea ez bada ere, kontuan hartu behar da jarraibide horiek zehaztu egin behar direla, hizkuntza-klausulak ezin baitira eskatzen diren gaitasun teknikoko baldintzetako edukia izan.

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukian kontuan hartzen badira txosten honetan emandako gidalerroak eta aholkuak.